

KONTROL MOZIOA, BIDEBIETAK BEHAR DUEN KULTUR ETXEARI BURUZKOA

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin, Bidebietak behar duen kultur etxearen ingurukoa. Mozioa, 2022ko irailaren 19an, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko maiatzean, Udalbatzak EH Bilduren mozio bat onartu zuen eskatzeko Udal Gobernuari abiatu zezala azterketa bat Bidebietan kultur etxe bat sortzeko aukerak zehazteko eta beharko lirakekeen baliabideen aurreikuspena egiteko; txostena izatean. horren berri udal taldeoi emateko ere eskatzen zen. Era berean, Udalbatzak eskatu zion Udal Gobernuari antolatuzeko parte hartzeko prozesu bat Bidebietako auzotarrei zuzendua, kultur arloan auzotarrek dituzten kezkei eta beharrei erantzuteko.

Donostia Kultura erakundeko (DK) Kultur Ekintzako zuzendari Jon Aizpuruak txosten moduko bat prestatu zuen (2021eko abenduaren 15eko data du), eta zuzendariak otsailaren 16an aurkeztu zuen DKko administrazio kontseiluan (bi aste lehenago mezua bidalita, gai ordenan sartzeko eskatu zuten EH Bilduko ordezkariak, baita auzotarrak gonbidatzeko ere). Bileran txostena aztertuta, hainbat zehaztapen egiteko eskatu zitzaion: aurrekariak kontuan izatea, inguruko kultur azpiegituren erabilera fluxuak, Eskola Horia aukera gisa aztertzea, aurrekontuak, ganorazko parte hartze prozesuaren beharra...

Apirilaren 6an, bilera egin zuen DKko administrazio kontseiluak, eta eskatutako zehaztapen horien inguruan jardun genuen. Isokronen txostenaren inguruan, orografiaren ezaugarria ez zela kontuan izan ohartarazi genuen; gainera, Eskola Horiaren inguruan egindako oharrei erantzunez, zuzendariak adierazi zuen Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarriko zela. Maiatzeko eta ekaineko bileretan, Bidebietako kultur etxea ez zen gai ordenetan azaldu. Horiek horrela, eta ikusirik epeak estutzen ari zirela 2023ko aurrekontu egitasmoan Bidebietako kultur etxerako diru sail bat sartu ahal izateko, irailaren 8an, interpelazioa erregistratu genuen gaia batzordera eramateko.

Batzordea baino lehen, irailaren 14ko DKren bileran, otsailean eskatutako zehaztapen ekonomikoak jaso genituen, baina horiek kultur etxe eredu mixto bati dagozkionak besterik ez ziren izan:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus

liburutegia eta kultur ekitaldietarako aretoak banatuta, eta enpresa pribatuko langileekin. Txostena ez zutenez aurretik bidali, ez genuen sakontzeko aukerarik izan.

Tarte horretan, ez da bilerarik antolatu auzotarrekin hitz egiteko Bidebietan kultur etxe bat sortzeko aukeren inguruan.

Irailaren 19an, udal batzordean aztertu genuen EH Bilduk aurkeztutako interpelazioa. Galdetu genuen zergatik ez duen oraindik berrartu Bidebietan kultur etxea antolatzeko eginkizuna, noiz aurkeztuko digun Bidebietan kultur etxea antolatzeko aurreikuspenen txosten osatua, eta noiz egingo duen bidebietarrekin aurrez aurreko bilera gaiaz jarduteko. Zinegotziak erantzun zuen gaia aztertzen jarraitzen dutela, zehaztapenak pilatzen, baina ez dutela parte hartzeko prozesurik egingo zehaztasun guztiak izan gabe. Era berean, aipatu zuen zail ikusten zuela 2023ko aurrekontuan sartzea, baina espero zuela agintaldia amaitzerako erabakia hartua izatea.

EH Bilduk gogorazi zuen zor historikoa duela Udalak bidebietarrekin, eta horregatik proposatu zuela, Ekialdeko Barrutiaren 2020ko aurrekontuan, auzoarentzat irekia izango zen liburutegia antolatzea, auzoko institutuaren proposamenari jarraiki. EH Bilduren ustez, Udal Gobernuak bizkortu egin beharko lituzke urratsak aurrean guztiak egiteko, eta 2023ko aurrekontuan jada jasotzeko diru sail bat, bidebietarren eskari historikoari erantzuteko bidean.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azkartu ditzala urratsak Bidebietan kultur etxearen aurreikuspenak eta beharrak lehenbailehen zehazteko, 2023ko aurrekontuan Bidebietako kultur etxerako diru sail bat sartzeko aukera izateko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari datozen asteetan antola dezala bilera zabal bat auzotarrekin, Bidebietan kultur etxe bat sortzeko aukeren inguruan hitz egiteko.

Donostia, 2022ko irailaren 23an.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH BILDU udal taldeko zinegotzia